

# Fontes

Linguae Vasconum

50 urte. Ekarpen berriak

euskararen ikerketari

Nuevas aportaciones al

estudio de la lengua vasca

## Euskarazko perpausik gabeko azpikonparazioak

LAURA VELA-PLO

Argitaratzaileak / Editores

Ekaitz Santazilia

Dorota Krajewska

Eneko Zuloaga

Borja Ariztimuño



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua

---

---

# Euskarazko perpausik gabeko azpikonparazioak

Basque phrasal subcomparatives

---

LAURA VELA-PLO

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

[laura.vela@ehu.eus](mailto:laura.vela@ehu.eus)

---

JASOA: 2019/07/27 | BEHIN-BEHINEAN ONARTUA: 2019/08/20 | BEHIN BETIKO ONARTUA: 2019/11/22

---

---

Ikerketa-lan hau honako instituzio eta ikerketa-proiektuei esker garatu ahal izan da: *Hizkuntzalaritza Teorikorako Taldea* (HiTT; Eusko Jaurlaritza, IT769-13 & IT1396-19); *2016-2020 Doktoratu Aurreko Programako laguntza* (Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila); Espainiako Ikerketa Agentzia (AEI)/Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitateen Ministerioa (MiCIU) (*VASTRUD* proiektua: PGC2018-096870-B-100 eta *VALAL* proiektua: FFI2014- 53675-P); eta Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU (UFI11/14). Nire esker ona eman nahiko nieke bereziki Myriam Uribe-Etxebarriari eta Elena Castroviejori, haien iruzkin zuhur eta laguntzagatik, *Hizkimilikiliklik* Hizki Elkarteko kideei nahiz UPV/EHUko Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak saileko irakasle eta ikasleei, eta bi errebisatzaile ezezagunei haien iruzkinengatik. Akats guztiak nireak baino ez dira, noski.

---

---

---

## LABURPENA

Euskarazko konparazio-egituren deskribapen eta analisisiek egitura horietan konparazioaren oinarritzat perpaus bat hartzen dela onartzen dute (Euskaltzaindia, 1999; Hualde & Ortiz de Urbina, 2003; Goenaga, 2008; UPV/EHuko Euskara Institutua, 2019); hots, *baino* partikularen ezkerrean mendeko perpaus bat kokatzen dela beti (*Ekarri dituen baino sagar gehiago jan nahiko nituzke*), murriztutako perpausa bada ere (*Zuriñe Zeian (den) baino bizkorragoa da*). Lan honetan *diru baino amets gehiago* edo *aurkari baino jarraitzaile gehiagori* bezalako azpikonparazioak dira aztergai. Egitura horien analisi sintaktikoa eta semantikoa emateaz gain, alde batetik, erakusten dut konparazio horien oinarria ez datorrela perpaus batetik. Beste alde batetik, mendeko egituren ezaugarriak izan beharrean, konparazio hauek koordinazio-egituren berezitasunak dituztela azaltzen dut.

**Gako-hitzak:** konparazioak; mendeko perpausak; mendekotasuna; koordinazioa; ezabaketa.

## ABSTRACT

Previous descriptions and analyses of Basque comparative structures assume that all comparatives involve a subordinate clause in the standard of comparison (Euskaltzaindia, 1999; Hualde & Ortiz de Urbina, 2003; Goenaga, 2008; UPV/EHuko Euskara Institutua, 2019). Hence, the standard marker *baino* ‘than’ is considered to always select for a subordinate clause, both in clearly clausal comparatives (*I’d like to eat more apples that she has brought*) and in not-so-obvious cases (*Zuriñe is faster than Zeian (is)*). In this paper, I offer a thorough syntactic and semantic analysis of subcomparatives like *more dreams than money* or *to more supporters than opponents* and show that (i) their standard of comparison is not derived from a CP that has undergone partial ellipsis, and that (ii) these subcomparatives do not behave like dependent structures, but display the hallmark properties of phrasal coordination.

**Keywords:** comparatives; subordinate clauses; dependency; coordination; ellipsis.

# 1. Konparazio-egiturak euskaraz

## 1.1. Aurrekariak

Euskarazko konparazio-egituren deskribapen eta analisisiek egitura horietan konparazioaren oinarritzat beti perpaus bat hartzen dela onartzen dute (Euskaltzaindia, 1999; Hualde & Ortiz de Urbina, 2003; de Rijk, 2008; Goenaga, 2008, 2012; UPV/EHUKo Euskara Institutua, 2019). (1) eta (2) adibideetan erakusten den bezala, *baino* partikulak bere ezkerrean beti mendeko perpaus bat hartzen duela onartzen da. Batetik, (1) adibidean konparazioaren oinarrian *en* menderagailua (Goenaga, 1985; Ortiz de Urbina, 1999; Artiagoitia, 2003; Artiagoitia & Elordieta, 2016) duen mendeko perpausa argi islatzen da. Bestalde, (2) adibideko oinarrian ez da agerian mendeko perpausik azaltzen, izen propio bat gauzatzen da soilik eta ez dago menderagailurik bistan. Nahiz eta konparazioaren oinarrian perpausa baino tamaina txikiagoko osagai bat azaleratu, konparazio-egitura guztietan mendeko perpausaren analisia defendatu ohi da. Ikuspuntu horretatik, agerian mendeko perpausik ez badago ere, ezabatze-prozesu batek balizko mendeko perpaus bat murriztu duela onartu ohi da (ik. (2) adibideko eskema). Hortaz, konparazio-egiturak euskaraz mendeko perpausen artean sailkatu ohi dira.

- (1) *Espero duen baino* jende gehiago etorriko da ospakizunera.

<i>Espero duen</i>	<i>baino</i>
GINARRIA	GINARRIAREN MARKAGAILUA
GINARRIAREN MULTZOA	

jende gehiago etorriko da ospakizunera.

- (2) *Zuriñe Zeian baino* bizkorragoa da.

Zuriñe	<i>Zeian (den)</i>	<i>baino</i>
GINARRIA	GINARRIAREN MARKAGAILUA	
GINARRIAREN MULTZOA		

bizkorragoa da.

Mendeko perpausaren analisiari jarraituz, Goenagak (2008, 2012) desberdintasuneko konparazioetan *bainoren* osagarria Konplementatzaile Sintagma (KonpS) bat dela


proposatzen du (ik. (3)). Horrez gain, *baino* eta bere osagarriaren jatorrizko sorgunea *-ago* partikulararen ezkerrean dagoela onartzen du. (4)-koak bezalako pare minimoetan oinarrituz, oinarriaren multzoak mugitzeko askatasun handia duela erakusten du Goenagak (2008, 232. or. (59)).

(3) [<sub>PostS</sub> [<sub>KonpS</sub> ... -(e)n] baino] ...-ago (Goenaga, 2008, 229. or. (51a))

(4) a. Harri hau [[*beste guztiak baino*] astunagoa] da.

b. Harri hau [ \_\_ astunagoa] da [*beste guztiak baino*].

*Baino* eta bere osagarria perpaus nagusian zehar hainbat kokalekutan agertzeko gaitasuna dela eta, Goenagak oinarriaren markagailua postposiziotzat hartzen du. (3)-n eta 1. irudian adierazten den bezala, *baino* eta KonpSak Postposizio Sintagma (PostS) bat osatzen dutela argudiatzen du Goenagak. Bestela esanda, Goenagaren analisiari jarraituz, konparazioaren oinarria PostS bat izango litzateke euskaraz.



1. irudia. Goenagaren (2012, 135. or. (58a)) ezberdintasun-konparazioen egitura proposamena (euskaratuta).

Konparazio-egituretako oinarria mendeko perpaus batetik eratorrita dagoela nabarmena da (1) bezalako adibideetan. Aitzitik, analisi bera oinarrian ageriko menderagailurik (hots, mendeko perpausik) ez daukaten kasuetan ere aplikatu beharra ez da begi-bistakoa. Konkretuki, hau izango da artikulua honetan aztertuko dugun baieztapena. Orain arte onartu legez, euskarazko konparazio-egituretako oinarriak beti perpaus batetik eratorzen dira? Bestela esanda, *bainoren* osagarria KonpS bat izan daiteke bakarrik, ala bestelako osagaiak ere hauta ditzake oinarriaren markagailuak?

## 1.2. Aztergaia: menderagailurik agerian ez daukaten azpikonparazioak

Lan honetan (5)-(7) bezalako zenbatasuneko konparazio-egiturak dira aztergai<sup>1</sup>. Egitura hauek *azpikonparazioak* (*subcomparatives* ingelesez; Bresnan, 1973, 1975) deitu izan dira.

<sup>1</sup> Lan honetako espazio-mugak direla eta ez dira azpikonparazio-mota guztiak aztertuko eta desberdintasuneko zenbatasuneko azpikonparazioei bakarrik eskainiko diet arreta. Hemen proposatutako analisia desberdintasun eta berdintasuneko azpikonparazioen arteko erabakia da.

Bi motatako kantitateak (*zenbatasun-azpikonparazioak*, (5)-(7)) edo graduak (*gradu-azpikonparazioak*, (8)-(9)) konparatzen dituen konparazio-klasea da azpikonparazioa.

Zenbatasun-azpikonparazioak:

- (5) *Diru baino* amets gehiago zuen agureak.
- (6) *Gizon baino* emakume gehiagok lortu zuten saria.
- (7) Elizegiren *aurkari baino* jarraitzaile gehiagori bidali zieten gutuna.

Gradu-azpikonparazioak:

- (8) *Kutxa luze baino* zabalago honek ez digu balio horretarako.
- (9) *Zahar baino* zuhurragoa da (Ithurry, 1895).

*Azpikonparazio* izena Bresnanen (1973, 1975) lanetik dator. Egile honek egitura horietan balizko neurri-sintagma bat dagoela defendatzen du. Neurri-sintagma hori isildurik (azpiezabaturik) gelditzen da elipsi edo ezabatze-operazio baten ondorioz. Bresnan eta beste egile batzuen aburuz (Corver, 1993; Kennedy, 2002 etab.), azpiezabaturik elementua *d much* edo *d many* gisa (hau da, 'hainbeste' bezala) uler daiteke, non *dk* gradu- edo maila-aldagai bat adierazten duen. Proposamen honen aldeko argudio nagusietako bat da horrelako konparazio-egiturek ez dutela oinarriaren barruan beste neurri-sintagmarik onartzen, beste konparazio-mota batzuek ez bezala (ik. (10a) eta (11a) adibide ez gramatikalak, eta (10b) eta (11b) esaldiekin alderatu). Hori zuzenean azal daiteke egitura hauek (isilik dagoen) neurri-sintagma bat dutela onartzen badugu; beraz, ezinezkoa da bigarren bat zilegiztatzea konparazio-egitura berean.

- (10) a. (\**Lau*) *gizon baino* emakume gehiagok lortu zuten saria.  
b. *Lau gizon baino* gehiagok lortu zuten saria.
- (11) a. *Kutxa (\*10 zentimetro) luze baino* zabalagoa da.  
b. *Kutxa 10 zentimetro baino* zabalagoa da.

Lan honetan, (10) eta (11) bezalako azpikonparatiboak aztertuko ditugu, non *bainoren* osagarriak ez duen perpaus baten itxura, askoz txikiagoa den osagai batena baino. Orain arte ez da konparazio-mota hauen azterketa zuzurrik egin (ez euskaraz, ez beste hizkuntza batzuetan; Bhatt & Takahashi, 2011), nahiz eta egitura hauek bereziki interesgarriak izan diren egitura konparatiboetara buruz luze dirauten bi eztabaida nagusien testuinguruan.

Lehen eztabaida konparazioaren oinarriaren tamainarekin loturik dago. Egile askoren ustez (Euskaltzaindia, 1999; Hualde & Ortiz de Urbina, 2003; de Rijk, 2008; Goenaga, 2008, 2012; UPV/EHUko Euskara Institutua, 2019) konparazioaren oinarriaren azpian perpaus bat dago beti. Ikuspuntu horren alde egiten dutenek ezabaketa-analisi

---

tasuneko (ik. i) gradu- edo maila-azpikonparazioetara ere molda badaiteke ere, gai honen azterketa sakonagoa beste lan baterako utzi behar dut.

(i) Esku artean dugun liburu *zabal bezain sakon* honen nondik norakoak azaltzen saiatuko gara (Gorrochategui, Igar-tua & Lakarra, 2018).

bat (hau da, perpausa murrizten duen elipsi-operazio bat) onartu ohi dute perpaus hori bere osotasunean zergatik ez den gauzatzen azaltzeko (Bresnan, 1973; Chomsky, 1977; Heim, 1985; Lechner, 2001 *inter alia*). Baina, ikuspuntu hori oso eraginkorra bada ere, ez da analisi posible bakarria. Badaude egitura horien zuzeneko analisi bat defendatzen dutenak ere. *Zuzeneko analisisia* deritzon proposamen honen arabera, konparazioaren oinarria ez legoke kasu guztietan perpaus batetik eratorrita. Aitzitik, oinarriaren markagailuak (hots, *bainok* euskaraz) perpausa baino sintagma txikiagoa den sintagma bat har dezake osagarri gisa egoera batzuetan (ik. Hoeksema, 1983; Napoli, 1983; edo Saéz, 1992, 1999 beste zenbait egileren artean). Ikuspuntu horretatik, honelako egiturek zuzenean islatuko lukete bere barne-egitura, eta ez litzateke inolako ezabatze- edo elipsi-operaziorik beharko haien ageriko itxura azaltzeko.

Bigarren eztabaida konparatutako elementuen arteko lotura-motarekin erlasionaturik dago. Konexio hau nolakoa den zehaztu beharra dago: maila bereko osagaien lotura baten aurrean gaude (hau da, koordinazio bat dugu) ala mendeko erlazio bat adierazten dute? Bresnan (1973), Chomsky (1977), Heim (1985) eta beste hainbat egileren iritziz, mendekotasun-erlazio baten aurrean gaude: konparazioaren oinarria *-ago* markagailua daukan elementuaren mende dago. Pinkhamek (1982), Napolik (1983), Napolik eta Nesporrek (1986), Corverrek (1993), Sáezek (1992, 1999), Lechnerrek (2004) eta beste hainbatek, ostera, konparazio-egitura batzuetan behintzat konparatutako elementuak koordinatuta daudela defendatzen dute. Napolik (1983) eta Corverrek (1993), adibidez, azpikonparazioek koordinazio-egituren ezaugarriak dituztela argudiatu dute. Eztabaida luze hauetan, hala ere, oraingoz ez da menderagailurik agerian ez daukaten azpikonparazioen analisi sintaktiko eta semantiko sakonik egin (Bhatt & Takahashi, 2011). Hortik ere hemen aurkezten dugun lanaren berritasuna eta interesa.

Hartara, aspalditik egon diren eztabaida horiek argitzeko nahian, azalean ageriko menderagailurik eta perpaus-itxurarik ez daukaten euskarazko azpikonparazioak aztertzeraz joko dugu orain. Azterketa honekin, alde batetik, konparazio horien oinarria perpaus batetik eratorrita dagoen ala ez finkatu eta, beste alde batetik, konparatutako elementuen arteko harremana zein den (koordinazioa ala mendekotasuna) argitu nahi dugu.

Pausoz pauso aurrera begira, 2. atalean ageriko menderagailurik ez daukaten euskarazko azpikonparazioen datuen behaketa sakona eskaini eta lehenengo galderari erantzuna emango diogu: (5)-(7) bezalako egitura azpikonparatiboetan *bainoren* osagarria ez da perpaus bat; egitura hauek ez dira elipsi- / ezabatze-operazio baten ondorioz eratorriak. Hurrengoan, 3. atalean, konparatutako elementuen arteko harremana aztertu eta egitura horiek juntagailuekin (hots, koordinazio-egiturekin) oso harreman berezia daukatela erakutsiko da. 4. atalean, egitura horien analisisia eman eta, 5. atalean, proposamen honen ondorio eta abantaila batzuk azalduko dira; bereziki, *baino* partikularen funtzio edo jokaeran jarriko dugu arreta.

## 2. Konparazioaren erreferentzia ez dago beti perpaus batetik eratorrita

### 2.1. Izen bakunak oinarrian, perpausetan ez bezala

*Bainoren* osagarriaren izaerari eta tamainaren nolakotasunari erantzun nahian, lehenik eta behin (12)-(14) adibideetako zenbatasun-azpikonparazioen oinarrian agertzen den elementuraren formari erreparatuko diogu. Hiru kasu horietan oinarriaren barruan, *bainoren* osagarri gisa, izen bakunak aurkitzen ditugu (*diru*, *gizon* eta *aurkari*). Egitura horietako oinarria perpaus batetik eratorrita egongo balitz, (15)-(17) adibideetan irudikatu bezala, *bainoren* ezker aldeko izenek kasu-marka azaltzea esperoko genuke.

Zenbatasun-azpikonparazioak:

- (12) *Diru baino* amets gehiago zuen agureak.
- (13) *Gizon baino* emakume gehiagok lortu zuten saria.
- (14) Elizegiren *aurkari baino* jarraitzaile gehiagori bidali zieten gutuna.

Zenbatasun-azpikonparazioen balizko barne-egitura mendeko perpausaren analisiari jarraituz:

- (15) ~~Agureak dirua zuen baino~~ amets gehiago zuen agureak.
- (16) ~~Gizonek saria lortu zuten baino~~ emakume gehiagok lortu zuten saria.
- (17) ~~Elizegiren aurkariei gutuna bidali zieten baino~~ jarraitzaile gehiagori bidali zieten gutuna.

Euskaraz jakina da izen bakunak ezin direla argumentuen kokalekuetan hutsik agertu (ik. (18)-(19); *cfr.* Laka, 1993; Artiagoitia, 1997, 2002)<sup>2</sup>. Hortaz, badirudi (12)-(14)-ko azpikonparazioetan *bainoren* osagarria ez dagoela perpaus batetik eratorrita. Gune horretan agertzen den elementua ezin daiteke perpaus murriztu baten argumentu izan. (19) adibideak erakusten duen bezala, *bainok* ageriko perpaus bat hartzen duen kasuetan ez da izen bakunik onartzen oinarrian.

- (18) *Gizon\*(-ek / horiek / guztiek)* lortu zuten saria.
- (19) *Iaz saria lortu zuten gizon\*(-ek) baino* emakume gehiagok lortu dute aurten.

Zuzeneko analisiarekin jarraituz, bestalde, kasu hauetan perpausa baino txikiagoa den sintagma bat izan ahalko genuke konparazioaren oinarrian. *Bainoren* osagarri-posizioan izen bakuna agertzeak ez luke arazorik sortuko. Analisi horren ordez, Hualdek eta Ortiz de Urbinak (2003) mendeko perpausaren analisia proposatzen dute, eta (12)-ko oinarriaren forma (*diru*) azaltzeko izen bakuna ahoskatu gabeko zenbatzaile batekin elkartzen dela proposatzen dute. Adibide horretako izen bakunaren agerrera azaltzeko,

<sup>2</sup> Etxeberriaren eta Etxepareren (2012) lanaren arabera, zubereraz artikulu edo zenbatzaile gabeko izen bakunak ager daitezke, baina soilik zeharkako osagarriaren edo osagarri zuzenaren kokalekuan. Beraz Hualderen eta Ortiz de Urbinaren analisiak (12) bezalako adibideak azaltzeko balioko luke bakarrik, ez (13)-(14) bezalako esaldiak azaltzeko, hor ergatibo- eta datibo-kasuak ditugulako.



honako hau adierazten dute: «The indefinite form is expected, on the other hand, if there is some sort of quantifier corresponding to the interpretation ‘more dreams than whatever amount of money he had’» (Hualde & Ortiz de Urbina, 2003, 843. or.).

Egile hauen isileko zenbatzailearen proposamenak izen bakunaren agerrera azal dezakeen arren, analisi hori onartuko bagenu, begi-bistako perpaus bat daukaten azpikonparazioetan ere oinarrian dagoen konparatutako elementua izen bakun bat izan ahal izatea esperoko genuke. Hau da, konparatutako izenarekin batuko litzatekeen balizko zenbatzailea isilean uztea posiblea izatea esperoko genuke eta, beraz, izenak ageriko artikulua edo zenbatzailerik behar ez izatea. Aldiz, (19)-ko adibideak erakusten duenez, iragarpen hori ez da betetzen. Artikulua eta kasu-marka derrigorrezkoak dira perpaus bat agerian daukaten azpikonparazio-egituretan, (12)-(14)-ko kasuetan ez bezala.

Beraz, ez dirudi (12)-(14) adibideetako zenbatasun-azpikonparazioak perpausa agerian daukaten (15)-(17)-ko adibideen antzeko egituretatik eratorrita daudenik. Ildo honetatik, hurrengo azpiatalean eta 3. atalean beste zenbait argudio ikusiko ditugu oinarrian izen bakunak dituzten azpikonparazioak eta perpaus (murriztu) bat dutenak bereiztu beharraren alde.

## 2.2. Ezinezko ezabaketa

*Bainoren* osagarriaren tamainaren galderarekin jarraituz, (20) bezalako azpikonparazio bati mendeko perpausaren analisisa aplikatuko bagenio, konparazio horren jatorria azaltzeko (21)-en tankerako egitura bat proposatu beharko genuke. (21)-en erakusten den moduan, bigarren urrats batean ezabatze-prozesu batek jatorrizko perpausaren zenbait elementu isilean utzi beharko litzuzke.

(20) *Gizon baino* emakume gehiagori buruz egin zituzten filmak.

(21) a.  $[[_{PS} \textit{Gizon-ei buruz}] \textit{egin zituzten filmak}] \textit{baino}$  emakume gehiagori buruz egin zituzten filmak.

b.  $[[_{PS} \textit{Gizon-ei buruz}] \textit{egin zituzten filmak}] \textit{baino}$  emakume gehiagori buruz egin zituzten filmak.

Dena den, (21)-eko oinarria murrizteko balizko ezabaketa-prozesua euskaraz beste inon azaltzen ez den elipsi-mota bat da. Lehenik, ezabatutako materialak ez luke sintagma bat osatuko. Horrez gain, perpaus baten barruan postposizio-buru bat eta osagarri duen Determinatzaile Sintagmaren kasu-marka ezabatzen duen elipsia proposatu beharko genuke. Ostera, badirudi euskaraz ez dagoela ezabatze-mota horren laginik perpaus baten elipsia onartzen duten bestelako testuinguruetan<sup>3</sup>:

<sup>3</sup> Itxuraz ezabatze-mota hau baimentzen duen kasu bat badagoela dirudi; konkretuki, *sluicing* mota berezi batean. (i) adibidea (ii)-tik eratorrita dagoela ontzat emango bagenu, postposizio-buru bat eta osagarri duen Determinatzaile Sintagmaren kasu-marka ezabatzen duen elipsia onartu beharko genuke.

(i) Miren norbaiti buruz hitz egiten zegoen baina ez dakit *nor*.

(ii) Miren norbaiti buruz hitz egiten zegoen baina ez dakit *nori buruz hitz egiten zegoen*.

Hala eta guztiz ere, ez dago argi (i) adibidearen jatorria (ii) den. Ordea, goiko adibidearen jatorria (iii) perpaus kopulatiboa dela ematen du.

(iii) Miren norbaiti buruz hitz egiten zegoen baina ez dakit *nor (den)*.

- (22) Gizon askori buruz filmak egin zituzten eta...
- ...emakumeei buruz ~~egin zituzten filmak~~ ere bai.
  - \*...emakumeei buruz ~~egin zituzten filmak~~ ere bai.
- (23) Gizon askori buruz egin zituzten filmak...
- ...emakumeei buruz ~~filmak~~ egin eta gero.
  - \*...emakumeei buruz ~~filmak~~ egin eta gero.

(20) bezalako azpikonparazio-egituretan oinarria perpaus batetik eratorrita egongo balitz, hori (21)-en irudikatutako balizko perpausetik eratorrita egongo litzateke. Hala eta guztiz ere, horrelako azpikonparazioetan bereziki perpaus murriztu bat dagoela aldarrikatu ahal izateko, bestelako egituretan frogatu ez den *ad hoc* ezabatze-arau bat proposatu beharko genuke. Faltsutu ezin daitekeen eta Ockhamen labanaren eta ekonomiarenean kontra doan *ad hoc* proposamen hau baztertuko dugu, beraz.

Laburbilduz, 2.1. atalean azaldutakotik (oinarrian izen bakunen agerrera) eta atal honetan aurkeztutako auzitik (*ad hoc* ezabatze-prozesu baten beharra mendeko perpausaren analisia defendatzeko) ondoriozta dezakegu aztertzen ari garen azpikonparazio-egituretan oinarria (*bainoren* ezkerrean agertzen den osagaia) ez dagoela perpaus batetik eratorrita. Hartara, erreferentziaren tamainaren galderari erantzuna eman ahal diogu. Lan honetan erakutsi dugu aztertutako azpikonparazioetan, behintzat, konparazioaren oinarria ez dela murriztutako perpausa. Hortaz, literaturan aurkitzen dugun ohiko ikuspegi edo onarpena ukatu beharra dago. Euskarazko konparazio-egiturak beti mendeko perpausen artean sailkatzea ez da egokia. 4. atalean perpausik gabeko azpikonparazioen aldeko zuzenezko analisi bat defendatuko dugu, baina, hara heldu aurretik, hurrengo atalean konparazio-egitura hauen beste berezitasun bat aztertuko dugu: koordinazio txikiekin duten antzekotasuna.

### 3. Koordinazio-egituren berezitasunak perpausik gabeko azpikonparazioetan

#### 3.1. Paralelotasuna

Lehenik eta behin, koordinazio txikietan, hau da, perpausen arteko koordinazioak ez diren horietan, jakina da elkartzen diren elementuek nolabaiteko parekotasuna azaldu behar dutela. Berezitasun horri *paralelotasun* edo *kidetasun baldintza* deitu ohi zaio (*cfr.* Chomsky, 1957; Williams, 1978; Munn, 1993, 2000; Hornstein & Nunes, 2002 *inter alia*)<sup>4</sup>.

---

Barrosen, Ellioten eta Thomsen (2015) arabera, zenbait hizkuntzek horrelako egituretan jatorri kopulatiboa (edo *pseudosluicinga*) onartzen dute, eta ezabaketaren guneak eta haien aurrekariak ez dutela beti isomorfitikoa izan behar defendatzen dute.

<sup>4</sup> Baldintza hau formalki nola jaso behar den galderaren inguruan desadostasun handia dago eta hipotesi bat baino gehiago proposatu dira: betebeharr sintaktiko bat legez (Chomsky, 1957), baldintza semantiko (Munn, 1993, 2000) edo irakurgarritasun-kondizio bat bezala elkargune kontzeptual-intentzionalean (Hornstein & Nunes, 2002), beste aukera batzuen artean (ik. Schachter, 1977; Sag, Gazdar, Wasow & Weisler, 1985, edo Zamparellik [2011] garatutako eztabaidak honen inguruan).

Egitura konparatiboei dagokienez, Pinkhamek (1982) eta Napolik (1983) nabarmendu zuten ingelesezko azpikonparazioetan oinarriaren markagailua (*than* ‘baino’) pareko hitz-kateen artean agertzen dela (adibidez, *a more tasty than elegant dinner* ‘afari elegante baino zaporetsuago bat’ [Pinkham, 1982, 123. or.]), emendiozko juntagailuaren kasuan bezala (*a tasty and elegant dinner* ‘afari elegante eta zaporetsu bat’).

Era berean, Sáezen (1999, 1149. or.) arabera, gaztelaniazko zenbatasun-azpikonparazioetan (*más chicas que chicos vieron más novelas que revistas en más bibliotecas que librerías* ‘mutil baino neska gehiagok aldizkari baino eleberrri gehiago irakurri zituzten liburudenda baino liburutegi gehiagotan’<sup>5</sup>) nahiz maila-azpikonparazioetan (*Teo es tan nervioso como inteligente* ‘Teo urduria bezain azkarra da’) *que* ‘baino’ eta *como* ‘bezain, beste, bezala’ oinarriaren markagailuek koordinatzaileen jokaera dute, azpikonparazioetan bi partikulek pareko segidak elkartzen dituztelako.

Orobat, lan honetan aztertzen ari garen euskarazko azpikonparazioetan (bai eta beste azpikonparazio klaseetan ere; ik. berriro (5)-(9) eta lehenengo oin-oharra) konparatutako elementuek paralelotasuna dutela nabaria da. Ezaugarri hau ikusita, ageriko perpausik gabeko azpikonparazioek koordinazio-egiturek jarraitu behar duten baldintza minimoa (hots, paralelotasun- edo kidetasun-baldintza) behintzat betetzen dute. Honez gain, hurrengo azpiatalean egitura hauen koordinazio-analisiaren alde erabakigarria den ebidentzia gehiago aurkeztuko dut.

### 3.2. Partekatutako elementuak

Sáezek (1992, 1999) eta Vela-Plok (2018a) gaztelaniazko konparazio-egitura batzuetan konparatutako elementuek koordinazio-harremana dutela aldarrikatzen dute. Sáezek (1999, 1148. or.), hain zuzen ere, (24)-ko motako azpikonparazioek gaztelaniaz emendiozko juntaduraren berezitasunak dituztela nabarmentzen du. Egile honek bai azpikonparazio hauek (24), bai izen koordinazio-egitura arruntek (25) osagarri bat partekatzea baimentzen dutela hautematen du. Bi adibideetan lor dezakegun interpretazioa honako hau da: *de Mao* ‘Maoren’ Sintagma Preposizionalak konparatzen edo koordinatzen diren bi izenak (hau da, *partidarios* ‘jarraitzaile’ eta *oponentes* ‘aurkari’) aldi berean modifikatzen dituela.

(24) *Conozco más partidarios que detractores de Mao.*  
ezagutzen.dituzt gehiago jarraitzaile baino aurkari GEN Mao  
‘Maoren aurkari baino jarraitzaile gehiago ezagutzen dituzt’.

(25) *Conozco partidarios y detractores de Mao.*  
ezagutzen.dituzt jarraitzaileak eta aurkariak GEN Mao  
‘Maoren aurkariak eta jarraitzaileak ezagutzen dituzt’.

Ostera, Sáezek (1999, 1148. or. (107)) argi uzten duenez, gaztelaniaz bi izenen artean osagarri bat partekatzea ezinezkoa da bi izen horietako bat mendeko perpaus baten barruan agertzen bada:

<sup>5</sup> Moldatutako adibidea.

- (26) \**Conozco partidarios [considerados como detractores de Mao].*  
 ezagutzen.dituzte jarraitzaile hartuta -tzat aurkari GEN Mao  
 \*‘Maoren aurkaritzat hartutako jarraitzaileak ezagutzen dituzte’<sup>6</sup>.

Ondoan aztertuko ditugun (27) eta (28) adibideetan aztergai ditugun euskarazko azpikonparazioek koordinazio-egituren jokaera berezi hau azaltzen dutela erakusten dute. Zehazkiago, adibide hauetan ikusten da perpausik gabeko azpikonparazioek partekatutako osagarriak baimentzeaz gain, partekatutako beste izen modifikatzaileak ere baimentzen dituztela (esaterako, *-ko* modifikatzaileak; ik. (28)). Hau da, perpausik gabeko zenbata-sun-azpikonparazioek izen-koordinazioen joera bera dute sistematikoki partekatutako elementuei dagokienez (ik. (27) eta (28)). Aitzitik, osagaia mendeko perpaus batean txertatuta agertzen denean (hots, (27c) eta (28c) adibideetan), bi izenak modifikatzeko aukera desagertzen da, esaldi bakoitzaren interpretazioaren azalpenean zehaztu legez.

- (27) Testuingurua: Athleticeko jarraitzaileak presidente berria nor izango den erabakitzen ari dira.
- Elizegiren* aurkari baino jarraitzaile gehiagori bidali zieten gutuna.
  - Elizegiren* aurkari eta jarraitzaile askori bidali zieten gutuna.
  - [<sub>Erl.P</sub> *Elizegiren* aurkari batzuk ezagutzen zituzten] jarraitzaile askori bidali zieten gutuna.

Interpretazio nagusia a. eta b. kasuetan: *Elizegiren* aurkariei eta *Elizegiren* jarraitzaileei buruz hitz egiten ari gara.

Interpretazio nagusia c. kasuan: *Elizegiren* aurkari batzuk ezagutzen zituzten Athleticeko jarraitzaileei buruz hitz egiten ari gara (hots, *Elizegiren ez da jarraitzaile* hitzaren osagarria).

- (28) a. *Gasteizko* gizon baino emakume gehiagok lortu zuten saria.
- Gasteizko* gizon eta emakume askok lortu zuten saria.
  - [<sub>Erl.P</sub> *Gasteizko* gizon batzuk ezagutzen zituzten] emakume askok lortu zuten saria.

Interpretazio nagusia a. eta b. kasuetan: *Gasteizko* gizonei eta *Gasteizko* emakumei buruz hitz egiten ari gara.

Interpretazio nagusia c. kasuan: *Gasteizko* gizonei buruz hitz egiten ari gara, baina ez dakigu nongoak diren emakumeak (hots, *Gasteizkok ez du emakume* hitza modifikatzen).

Laburbilduz, aztertutako zenbata-sun-azpikonparazioek koordinazio-egituren portaera dute, eta ez edozein koordinazio-egituraren jokaera, gainera. Aztertutako kasu guztietan, perpausik gabeko azpikonparazio-egiturek koordinazio txikien portaera, izen-koordinazioena hain zuzen ere, agertzen dute.

<sup>6</sup> (26) adibidea gaztelaniaz egokia ez bada ere, euskaraz ez dago hain argi hala den. Testuinguru pragmatiko jakin batean, zeinetan *jarraitzaileak* ez diren *Maorenak*, *komunismoaren jarraitzaileak* baizik, esaterako, esaldia onargarria litzateke euskaraz. Beraz, ez dirudi hizkuntza honetan izen baten osagarria omititzea gaztelaniaz bezain txartzat hartzen denik. Hala ere, (26) adibidea ez da onargarria *Maoren aurkari* eta *Maoren jarraitzaileei* buruz hitz egiten ari garela adierazi nahi badugu, hau da, guri interesatzen zaigun irakurketan; hortaz, ezgramatikaltasun ikurra (\*) dagokio.

## 4. Perpausik gabeko azpikonparazioen analisisia

Orain arte ikusitakoa laburbilduz, alde batetik, aztergai diren azpikonparazioetan *bainok* (oinarriaren markagailuak) ez du perpaus murriztu bat hartzen osagarritzat. Horren aldeko ebidentzia 2. atalean eman dugu eta 3.2. ataleko datuek proposamen hori indartu egin dute. Honez gain, 3. atalean azaldu dugu konparatutako elementuen arteko lotura koordinazioa dela, eta ez menderakuntza, orain arte onartu legez. Hartara, ez dirudi euskarazko konparazio-egitura guztietarako analisi bateragarri bat formula daitekeenik. Konparazio-egitura batzuetan mendeko perpausaren analisisia mantentzeak egokia badi-rudi ere (adibidez, oinarrian mendeko perpaus bat agerian dituzten konparazio egituren kasuan bezala, Goenagaren [2008, 2012] ildotik), analisi hori ez da egokia oinarrian agerizko aditz eta menderagailurik ez dituzten azpikonparazio-egituretan behintzat.

Horretan guztian oinarrituz, perpausik gabeko azpikonparazioetarako zuzenezko analisi bat defendatuko dut. Analisi honen arabera, konparatutako elementuak koordinazio-harremanean daude, mendekotasun-harremana izan beharrean. Zenbatasunezko konparazioak aztertzen ari garenez, Goenagaren (2008) eta Vela-Ploren (2018b) analisi sintaktikoari jarraituko diogu *gehiago* konparazioaren markagailua aztertzeko. Elementu konplexu hau izenei lotutako gradua edo kopurua zehazten duen Zenbaki Sintagma batek (Borer, 2005; Etxeberria, 2005; Etxeberria & Etxepare, 2011) eta gradu-buru batek osatzen dute, (29)-n irudikatu legez.

(29) *gehiago* = [[ *gehi-*<sub>ZenS</sub> ] -ago<sub>Grads</sub>] (*asko* zenbatzailearen forma konparatiboa).

Perpausik gabeko azpikonparazioek dituzten ezaugarri bereizgarriak azaltzeko, Vela-Ploren (2018b, 62-65. or.) proposamenari jarraitu eta *bainok* (oinarriaren markagailuak) aurkaritzako koordinazio-juntagailuarekin lotura estua daukala onartuko dugu<sup>7</sup>. Funtsean, konparazio-egitura batzuetan *bainok* juntagailuaren joera agertzen duela aldarrikatzen du egile honek, bi pareko elementu elkartuz. Ildo honetatik, lan honetan (30)-(31) tankerako perpausik gabeko azpikonparazioetan *bainok* bi Gradu Sintagma elkartzen dituela proposatzen da, (30)-(31)-n irudikatu legez.

(30) a. Diru baino amets *gehiago* zuen agureak.

b. [[[[Diru *Zen*<sub>ZenS2</sub>] *d*<sub>Grads2</sub>] baino<sub>&S</sub>] [[[amets *gehi-*<sub>ZenS1</sub>] ago<sub>Grads1</sub>] *Grads1*]] zuen agureak<sup>8</sup>.

(31) a. *Aurkari baino* jarraitzaile *gehiagori* bidali zieten gutuna.

b. [[[[Aurkari *Zen*<sub>ZenS2</sub>] *d*<sub>Grads2</sub>] baino<sub>&S</sub>] [[[jarraitzaile *gehi-*<sub>ZenS1</sub>] agori<sub>Grads1</sub>] *Grads1*]] bidali zieten gutuna.

Bresnanek (1973, 1975) argudiatu eta hasieran 1.2. atalean azaldu den moduan, az-

<sup>7</sup> Stassenen (1985) eta Vela-Ploren (2018c) lanetan proposamen honen aldeko datu tipologikoak eta eztabaida aurki daitezke.

<sup>8</sup> Koordinazioaren analisiari dagokionez, Munnen (1993) adjunktua analisisia jarraitzen dut. Ik. Munn (1993, 2000 eta hurrengo lanak) koordinazioaren analisi honen abantailen xehetasunak jakiteko; adibidez, koordinatutako elementuen arteko komuzadura-asimetriak azaltzeko gai izatea.

pikonparazio hauetako oinarrian neurri-sintagma bat isilduta utzi edo azpiezabatzen dela onartzen da. Isilean utzitako segida *hainbeste* bezala uler daiteke, eta zenbaki-buru batez (*Zen*) eta gradu-aldagai batez (*d*) osaturik dagoela proposatzen dut.

Proposamen honen abantailen artean, oinarrian izen bakunen agerrera argitzea dago. Analisi sintaktiko honen arabera, azpikonparazio-egiturak argumentu bakarra osatzen du. Hau da, (30) adibidean, Gradu Sintagma ( $[_{\text{GradS1}} \text{diru baino amets gehiago}]$ ) osagai bakarra da, osagarri zuzenaren funtzioa daukana. Gauza bera (31) adibidean; hemen ere  $[_{\text{GradS1}} \text{aurkari baino jarraitzaile gehiagori}]$  Gradu Sintagmak osagai bakar bat osatzen du, perpausaren zeharkako osagarria dena. Honek zuzenean azaltzen du zergatik (31) bezalako adibideetan datiboko kasu-marka bakarra agertzen den, 2.2. atalean azaldutako *ad hoc* ezabaketa-prozesurik erabili gabe.

## 5. Ondorioak: bi motatako konparazio-egiturak euskaraz

Euskarazko konparazio-egituren deskribapen eta analisisiek egitura hauetan konparazioaren oinarritzat perpaus bat hartzen dela onartzen dute (Euskaltzaindia, 1999; Hualde & Ortiz de Urbina, 2003; Goenaga, 2008, 2012; UPV/EHUko Euskara Institutua, 2019); hots, *bainoren* ezkerrean mendeko perpausa kokatzen dela beti, murriztutako perpausa bada ere. Lan honetan, agerian mendeko perpausik ez daukaten azpikonparazioak xehetasunez ikertu ditugu. Azterketa honekin, batetik, konparazio horien oinarria ez dagoela perpaus batetik eratorrita erakutsi da. Bestalde, egitura horiek juntagailuen, hau da, koordinazio-egituren, propietate bereizgarriak azaltzen dituztela frogatu da. Hortaz, ohiko onarpena errefusatu eta euskarazko konparazio-egitura guztiak ez daudela mendeko perpaus batez osatuta azaldu dugu.

(32) Espero duen *baino*<sub>mende</sub> jende gehiago etorriko da ospakizunera.

(33) Diru *baino*<sub>&</sub> amets gehiago zuen agureak.

Analisi honek aipatzekoa den ondorio bat dakar. Euskaraz badirudi bi motatako konparazio edo bi *baino* homofono dauzkagula: mendeko erreferentzia eransten duena (*baino*<sub>mende</sub>, (32)n bezala; ik. Goenaga [2008, 2012]) eta konparatutako bi elementuak koordinatzen dituena (*baino*<sub>&</sub>, (33)n irudikatu legez), aurkaritzako koordinazio-juntagailuarekin lotura estua daukana (ik. Vela-Plo, 2018b).

## Erreferentziak

- Artiagoitia, X. (1997). DP predicates in Basque. In A. Taff (arg.), *University of Washington Working Papers in Linguistics 15* (161-198. or.). Washington: University of Washington.
- Artiagoitia, X. (2002). The functional structure of the Basque noun phrase. In X. Artiagoitia, J. Lakarra & P. Goenaga (arg.), *Erramu boneta. Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk* (73-90. or.). Bilbo: UPV/EHU.

- Artiagoitia, X. (2003). Complementation. In J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque* (634-710. or.). Berlin: Mouton de Gruyter.
- Artiagoitia, X. & Elordieta, A. (2016). On the semantic function and selection of Basque finite complemenizers. In K. Boye & P. Kehayov (arg.), *Complementizer semantics in European languages* (379-411. or.). Berlin-Boston: Mouton de Gruyter. doi: <https://doi.org/10.1515/9783110416619-013>.
- Barros, M., Elliot, P. D. & Thoms, G. (2015). More variation in island repair: The clausal/non-clausal distinction. In F. Gallagher, K. Franich, J. Pietraszko & T. Vardomskaia (arg.), *Proceedings of the Forty-ninth Annual Meeting of the Chicago Linguistic Society*. <https://patrl.keybase.pub/papers/cls49proceedings.pdf> helbidetik eskuratu.
- Bhatt, R. & Takahashi, S. (2011). Reduced and unreduced phrasal comparatives. *Natural Language and Linguistic Theory*, 29(3), 581-620. doi: <https://doi.org/10.1007/s11049-011-9137-1>.
- Borer, H. (2005). *In name only*. Oxford: Oxford University Press. doi: <https://doi.org/10.1093/acprof:oso/9780199263905.001.0001>.
- Bresnan, J. (1973). Syntax of the comparative clause construction in English. *Linguistic Inquiry*, 4, 275-343.
- Bresnan, J. (1975). Comparative deletion and constraints on transformations. *Linguistic Analysis*, 1(1), 25-74.
- Chomsky, N. (1957). *Syntactic structures*. Haga: Mouton.
- Chomsky, N. (1977). On wh-movement. In P. W. Culicover, T. Wasow & A. Akmajian (arg.), *Formal syntax* (71-132. or.). New York: Academic Press.
- Corver, N. (1993). A note on subcomparatives. *Linguistic Inquiry*, 24(4), 773-781.
- De Rijk, R. P. G. (2008). *Standard Basque. A progressive grammar 1*. Cambridge, Massachusetts-Londres: MIT Press.
- Etxeberria, U. (2005). *Quantification and domain restriction in Basque* (doktore-tesia). UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz.
- Etxeberria, U. & Etxepare R. (2011). Measures and counting in Basque. In R. Gómez, J. Gorrochategui, J. A. Lakarra & C. Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren II. biltzarraren aktak* (353-388. or.). Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU.
- Etxeberria, U. & Etxepare, R. (2012). When quantifiers do not agree: Three systems. *Journal of Portuguese Linguistics*, 11(1), 61-82.
- Euskaltzaindia. (1999). *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak (V libk.)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Goenaga, P. (1985). Complementación y nominalización en euskara. *ASJU*, 19(2), 493-570.
- Goenaga, P. (2008). Euskal neurri sintagmen azterketa baterako: zenbat x, zenbat x-ago, zenbat x gehiago. In Euskaltzaindia (arg.), *Jean Haritschelhar-i omenaldia. Iker 21* (211-240. or.). Bilbo: Euskaltzaindia.
- Goenaga, P. (2012). An overview of Basque measure phrases. In U. Etxeberria, R. Etxepare & M. Uribe-Etxebarria (arg.), *Noun phrases and nominalization in Basque*.



- Linguistics Today* 187 (111-148. or.). Amsterdam: John Benjamins Publishing. doi: <https://doi.org/10.1075/la.187.06goe>.
- Gorrochategui, J., Igartua, I. & Lakarra, J. A. (arg.). (2018). *Euskararen historia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza.
- Heim, I. (1985). *Notes on comparatives and related matters*. Eskuizkribu argitaragabea. University of Texas, Austin.
- Hoeksema, J. (1983). Negative polarity and the comparative. *Natural Language and Linguistic Theory*, 1(3), 403-434.
- Hornstein, N. & Nunes, J. (2002). On asymmetries between parasitic gap and across-the-board constructions. *Syntax*, 5(1), 26-54. doi: <https://doi.org/10.1111/1467-9612.00046>.
- Hualde, J. I. & Ortiz de Urbina, J. (2003). *A grammar of Basque*. Berlin-New York: Mouton de Gruyter.
- Ithurry, J. (1895). *Grammaire Basque: Dialecte Labourdin*. Baiona: A. Lamaignère.
- Kennedy, C. (2002). Comparative deletion and optimality in syntax. *Natural Language and Linguistic Theory*, 20(3), 553-621.
- Laka, I. (1993). Unergatives that assign ergative, unaccusatives that assign accusative. In J. D. Bobaljik & C. Phillips (arg.), *Papers on case and agreement I*. MIT Working Papers in Linguistics 18 (149-172. or.). Cambridge, Massachusetts: MIT Working Papers in Linguistics.
- Lechner, W. (2001). Reduced and phrasal comparatives. *Natural Language and Linguistic Theory*, 19(4), 683-735.
- Lechner, W. (2004). *Ellipsis in comparatives*. Berlin: Walter de Gruyter. doi: <https://doi.org/10.1515/9783110197402>.
- Munn, A. (1993). *Topics in the syntax and semantics of coordinate structures* (doktoretesia). University of Maryland, Maryland.
- Munn, A. (2000). Three types of coordination asymmetries. In K. Schwabe & N. Zhang (arg.), *Ellipsis in conjunction* (1-22. or.). Tübingen: Max Niemeyer. doi: <https://doi.org/10.1515/9783110952155-002>.
- Napoli, D. J. (1983). Comparative ellipsis: A phrase structure analysis. *Linguistic Inquiry*, 14(4), 675-694.
- Napoli, D. J. & Nespors, M. (1986). Comparative structures in Italian. *Language*, 62(3), 622-653. doi: <https://doi.org/10.2307/415481>.
- Ortiz de Urbina, J. (1999). Force phrases, focus phrases and left heads in Basque. In J. Franco & A. Landa (arg.), *Grammatical Analysis of Romance and Basque* (179-194. or.). Amsterdam: John Benjamins.
- Pinkham, J. (1982). *The formation of comparative clauses in French and English*. New York: Garland.
- Sáez, L. (1992). Comparison and coordination. In J. A. Lakarra & J. Ortiz de Urbina



- (arg.), *Syntactic theory and Basque syntax*. *ASJÜren gehigarriak* 27 (387-416. or.). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Sáez, L. (1999). Los cuantificadores: las construcciones comparativas y superlativas. In I. Bosque & V. Demonte (arg.), *Gramática descriptiva de la lengua española* (1129-1188. or.). Madrid: Espasa Calpe.
- Sag, I., Gazdar, G., Wasow, T. & Weisler, S. (1985). Coordination and how to distinguish categories. *Natural Language and Linguistic Theory*, 3, 117-171.
- Schachter, P. (1977). Constraints on coordination. *Language*, 53, 86-103.
- Stassen, L. (1985). *Comparison and universal grammar*. Oxford: Blackwell.
- UPV/EHUko Euskara Institutua (2019). Konparazio perpausak. *Sareko euskal gramatika (SEG)*. [www.ehu.es/seg](http://www.ehu.es/seg) helbidetik eskuratu.
- Vela-Plo, L. (2018a). Standards of comparison and the case of Spanish «*que-de* alternation». In K. Bellamy, A. Ionova & G. Saad (arg.), *Proceedings of the 25th Conference of the Student Organization of Linguistics in Europe* (229-249. or.). Leiden: Leiden University Centre for Linguistics. doi: 10.5281/zenodo.1167802.
- Vela-Plo, L. (2018b). Smaller than small comparatives: the case of Basque. *Borealis-An International Journal of Hispanic Linguistics*, 7(1), 45-69. doi: <http://dx.doi.org/10.7557/1.7.1.4398>.
- Vela-Plo, L. (2018c). A little *more* on comparison: variation and common cognitive and linguistic properties. In J. A. Lakarra & B. Urgell (arg.), *Studia philologica et diachronica in honorem Joakin Gorrotxategi. Vasconica et Aquitanica*. *ASJU* 52(1/2), 817-851. doi: <https://doi.org/10.1387/asju.20232>.
- Williams, E. (1978). Across-the-board rule application. *Linguistic Inquiry*, 9, 31-43.
- Zamparelli, R. (2011). Coordination. In C. Maienborn, K. Von Stechow & P. Portner (arg.), *Semantics: An international handbook of natural language meaning 2* (1713-1741. or.). Berlin-Boston: Walter de Gruyter. doi: <https://doi.org/10.1515/9783110255072>.

# Aurkibidea / Índice

- 11 Aitzinsolasa
- 13 Prólogo
- 15 Testu-corpusen informazio morfosintaktikoaren etiketatze automatikoa  
hizkuntz ezagutzan oinarrituz: zenbait arazo, hainbat erronka  
ITZIAR ADURIZ, JOSE MARI ARRIOLA
- 31 Bertsolaritzaren genealogia subalternoak  
LUZIA ALBERRO, K. JOSU BIJUESCA
- 47 Euskal hiztun berri gazteak muda-prozesuan: ekintza-ikerketa baten  
behinbehineko emaitzak  
ESTIBALIZ AMORRORTU, ANE ORTEGA, JONE GOIRIGOLZARRI
- 63 Garaziko euskararen azterketa diafasikoa  
ALEXANDER ARTZELUS MUXIKA
- 81 Berridazketak Sarrionandiaren poesian eta Saizarbitoriaren *Egunero hasten  
delako* nobelan: hurbilpen genetiko bat  
MIKEL AYERBE SUDUPE
- 95 Somorrostro, mendebaldeko euskararen muga  
GOIO BAÑALES, MIKEL GORROTXATEGI
- 113 Euskara sasoian? Euskararen sozializazioa Gasteizko  
pilota-elkarte batean  
IÑIGO BEITIA
- 127 Euskal hiztun natiboak, ez-natiboak eta hitanoa  
GARBIÑE BEREZIARTUA ETXEBERRIA, BEÑAT MUGURUZA ASEGINOLAZA
- 141 Lingüística Histórica: estado actual  
LYLE RICHARD CAMPBELL
- 163 Lenguas y sociolingüística en el interior del País Vasco en el siglo XIX:  
testimonios del Archivo Zavala  
BRUNO CAMUS BERGARECHE, SARA GÓMEZ SEIBANE

- 177 Les verbes psychologiques du basque : typologie et diachronie  
DENIS CREISSELS, CÉLINE MOUNOLE
- 195 Testu-generoaren irudikapena eta erabilera ahozkoaren  
didaktikan  
LEIRE DIAZ DE GEREÑU LASAGA, ITZIAR IDIAZABAL GORROTXATEGI, LUIS MARI  
LARRINGAN ARANZABAL
- 209 Zentsura-ikasketak gaur egun: aplikazioa euskal literaturan  
AMAIA ELIZALDE ESTENAGA
- 223 Azentuazioaren eremu sintaktikoak mugatzen  
ARANTZAZU ELORDIETA
- 237 Sintaktikoki etiketatutako euskarazko corpus historikoa  
eraikitzen  
AINARA ESTARRONA, IZASKUN ETXEBERRIA, RICARDO ETXEPARE, MANUEL  
PADILLA-MOYANO, ANDER SORALUZE
- 253 Ahozkotasunaren didaktika ikuspegi dialektikotik abiatuta  
AINHOA EZEIZA, JAVIER ENCINA
- 267 Ahozko euskararen erabilera eskolan: gako zenbait irakasleen prestakuntzarako  
INES M. GARCIA-AZKOAGA, OLATZ BENGOETXEA, JOSUNE ZABALA
- 283 El corónimo navarro *Salazar / Zaraitzu*: origen y desarrollo de su doble  
denominación  
ROBERTO GONZÁLEZ DE VIÑASPRE
- 295 *Fontes Linguae Vasconum*: orígenes y documentos para una Historia  
del Euskara  
JOAQUÍN GORROCHATAGUI
- 315 Euskal literatura itzuliaren historiografia bateraturantz  
MIREN IBARLUZEA SANTISTEBAN
- 329 Basque among the world's languages: a typological approach  
IVÁN IGARTUA
- 351 Familias vascohablantes: propuesta de definición desde la socialización  
lingüística  
PAULA KASARES
- 363 Formation linguistique de basque aux enseignants, pour un enseignement  
bilingue à parité horaire au Pays Basque Nord  
BEÑAT LASCANO
- 375 Eñaut Etxamendiren obra narratiboaren ekarpena euskal poetika erruralari  
ITZIAR MADINA
- 391 Erdaretarako literatur itzulpena: zeharkako eta zuzeneko itzulpenaren arteko  
muga lausoa  
ELIZABETE MANTEROLA AGIRREZABALAGA

- 405 Ahozko euskararen irakaskuntzarako irakasleen prestakuntza: berrikuntza didaktikoa eta soziala?  
IBON MANTEROLA
- 421 Enkarterriko PI-(h)aran/(h)uri motako euskal toponimoak  
MIKEL MARTÍNEZ ARETA
- 437 Diachronical hypotheses accounting for synchronic variation: the case of the Basque particle *ote*  
SERGIO MONFORTE
- 453 Jardueraren azterketa irakasleak prestatzeko bide: debatearen ikas-irakaskuntzaren adibidea  
AROA MURCIANO EIZAGUIRRE, ARANTZA OZAETA ELORTZA
- 467 Hausnarketa zenbait euskal literatura-ikerketetz  
MARI JOSE OLAZIREGI
- 485 Ahozko euskara *Kolegioko ikastresna* ikasmaterialean  
ARGIA OLÇOMENDY
- 501 Euskararen postposizioak  
JAVIER ORMAZABAL
- 517 Hitz-ordenaren eragina zenbait ezaugarri gramatikalen erabilera-maiztasunean  
LUIS PASTOR
- 533 Differential D-marking on proper names? A cross-linguistic study  
IKER SALABERRI
- 547 Externalization and morphosyntactic parameters in Basque  
HISAO TOKIZAKI
- 561 XIX. mendeko Debagoieneko testuez zenbait argitasun: egiletasuna eta iturriak  
OXEL URIBE-ETXEBARRIA
- 579 Euskarazko perpausik gabeko azpikonparazioak  
LAURA VELA-PLO
- 595 Latinaren aurreko osagai indoeuroparra Euskal Herriko toponimian: bukaeran -(iz)amo duten leku-izenak  
LUIS MARI ZALDUA

**Izenburua/Título:**

Fontes Linguae Vasconum 50 urte. Ekarpen berriak euskararen ikerketari/Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca

**© Argitaratzaileak/Editores:**

Ekaitz Santazilia, Dorota Krajewska, Eneko Zuloaga, Borja Ariztimuño

**© Egileak/Autores:**

Itziar Aduriz, Jose Mari Arriola, Luzia Alberro, K. Josu Bijuesca, Estibaliz Amorrortu, Ane Ortega, Jone Goirigolzarri, Alexander Artzelus Muxika, Mikel Ayerbe Sudupe, Goio Bañales, Mikel Gorrotxategi, Iñigo Beitia, Garbiñe Bereziartua Etxeberria, Beñat Muguruza Aseginolaza, Lyle Richard Campbell, Bruno Camus Bergareche, Sara Gómez Seibane, Denis Creissels, Céline Mounole, Leire Diaz de Gereñu Lasaga, Itziar Idiazabal Gorrotxategi, Luis Mari Larringan Aranzabal, Amaia Elizalde Estenaga, Arantzazu Elordieta, Ainara Estarrona, Izaskun Etxeberria, Ricardo Etxepare, Manuel Padilla-Moyano, Ander Soraluze, Ainhoa Ezeiza, Javier Encina, Ines M. Garcia-Azkoaga, Olatz Bengoetxea, Josune Zabala, Roberto González de Viñaspre, Joaquín Gorrochategui, Miren Ibarluzea Santisteban, Iván Igartua, Paula Kasares, Beñat Lascano, Itziar Madina, Elizabete Manterola Agirrezabalaga, Ibon Manterola, Mikel Martínez Areta, Sergio Monforte, Aroa Murciano Eizaguirre, Arantza Ozaeta Elortza, Mari Jose Olaziregi, Argia Olçomendy, Javier Ormazabal, Luis Pastor, Iker Salaberri, Hisao Tokizaki, Oxel Uribe-Etxebarria, Laura Vela-Plo, Luis Mari Zaldua

**© Argitaratzailea/Edita:**

Nafarroako Gobernua/Gobierno de Navarra

Kultura eta Kirol Departamentua/Departamento de Cultura y Deporte

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia/Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana

Lanak adituek berrikusi dituzte, itsu bikoitzeko sistemaren bidez/Los trabajos han sido revisados por pares doble ciego.

**Diseinua eta maketazioa/Diseño y maquetación:**

Kö estudio

**Imprimaketa/Impresión:**

Linegrafic

ISBN: 978-84-235-3561-3

LG/DL: NA 1438-2020

**Sustapena eta banaketa/Promoción y distribución:**

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtsa/Fondo de Publicaciones del Gobierno de Navarra

Navas de Tolosa, 21

31002 Iruña/Pamplona

Tel.: 848 427 121

fondo.publicaciones@navarra.es

<https://publicaciones.navarra.es>

# Fontes Linguae Vasconum 50 urte.

2019an 50 urte egin zituen Nafarroako Gobernuaren Vianako Printzea Erakundeak argitaratzen duen *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta* euskal hizkuntzalaritzako aldizkariak.

Horren gorazarre, liburu honek gaur egungo euskal hizkuntzalaritza- eta literatura-ikerketa zertan den erakutsi nahi du. Eskarmentu handiko ikertzaileek eta belaunaldi berriek bat egin dute argitalpen honetan, besteak beste, dialektologia, hizkuntzaren didaktika, filologia, gramatika teorikoa, hizkuntz tipologia, hizkuntzalaritza historikoa, itzulpengintza, literatura, onomastika eta soziolinguistika hizpide dituztela.

---

La revista de lingüística vasca *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta*, publicada por la Institución Príncipe de Viana del Gobierno de Navarra, cumplió 50 años en 2019.

En homenaje de la efemérides, este libro pretende dar cuenta del estado actual de la investigación en lingüística y literatura vascas. Investigadores de gran trayectoria y nuevas generaciones se aúnan en esta publicación para tratar, entre otros temas, sobre dialectología, didáctica de la lengua, filología, gramática teórica, tipología lingüística, lingüística histórica, traducción, literatura, onomástica y sociolingüística.

ISBN: 978-84-235-3561-3



9 788423 535613